


Eskuak garbiak ditut

Hurrek beren eskuen hatzak¹ margotzen dituzte. Bestalde, igeltsua edo buztina erabil dezakete hatzen moldatzeko. Ondotik, erakusketa apailatzen dute burrasoentzat.

¹ aztarnak, arrastoak.



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Ahoskera

/s/ fonemaren lantzeko hitz hauek errepikaraz : hasiera, osasuna, isopa, salda, sosa, sasoina...

« Sasoinaren hasieran, sortu da Susana. » esaldia errepika.

Irakasleak esaldi bat erraten du. /s/ fonema entzutean, ikasleek eskua altxatzen dute.



Motrizitatea

Zein bere haztarnen bila : haur bakoitzak bere eskuen ingurua marrazten du. Irakasleak denen lanak biltzen ditu, nahasten eta lurrean hedatzen. Ikasleek eskuak ongi pausatu behar dituzte, eskuina eta ezkerre ongi bereiziz.

Eskuen garbitzen ikasi

Taldea mugimenduan

Elgarri so/bekoz-beko/sahetsean/bizkarrez eman zaitezte.

Taldean bikoteak osa eta joko horretan ikasle guztiak sarraraz.

Gehi daitezke : *belauniko, jarririk, kokoriko, ixtaklok, etzanik, ahuspez, etzanik gora begira, ...*

Xoria, arraina, ahatea edo igelarena egin. Jokoa luzatzen ahal da hartza, behia edo beste animalia batzuekin.

Mozorroak

Pastila gorri batzu eman kopetan, mateletan, sudurrean, begietan, eskuetan... eta ondotik molde honetako erranaldiak eginaraz :

- Kopeta gorria dut.
- Matelak gorriak ditut...

nor-nork indikatiboan.

Erakusleak inesiboan.

- Ona atzeman du/duzu/dugu.
- Ongi sartzen naiz honetan/horretan.

Izenordainaren noren kasua. Izenlagunak pluralean.

- Ene eskuak garbiak dira.
- Zure eskua garbia da.

nor aginteran.

- Eman zaitezte bekoz-beko.
- Eman zaitez bizkarrez.

nor-nork indikatiboan.

- Aditzaren aspektua.
- Nik ahatearena egiten dut.
- Zuk hartzarena eginen duzu.

nor-nork pluralean.

- Kopeta gorria dut.
- Matelak gorriak ditut.